

MILA KOLORE

2025-2026

ELKARREKIN

**IKERKETA ETA GIZARTE
EKINTZAKO KOOPERATIBA**

ongi etorri
eskolara



Elkarrekin Koop. Elk. Txikia

Ongi Etorri Eskolara proiektua

elkarrekin.kooptxiki@gmail.com
www.ongietorrieskolara.org

Egileak:
Josune Freire eta Oihane Iriarte

Koordinatzaileak:
Lorea Senperena, Lola Boluda, Garazi Zarauz



www.ongietorrieskolara.org



[@oeskolara](https://www.instagram.com/oeskolara)



[Ongi Etorri Eskolara](#)



[ElkarrekinKoop](#)

AURKIBIDEA

• SARRERA	4
• KULTURARTEKO HEZKUNTZA	5
• HAUR HEZKUNTZARAKO SAIOAK:	
◦ Kometak (HH4)	8
◦ Ipuin interaktiboa (HH5)	9
• LEHEN HEZKUNTZARAKO SAIOAK:	
◦ LEHEN ZIKLOA (LH1-LH2):	
▪ Laukitxoak	11
▪ Mundutik bidaiatuz	12
◦ BIGARREN ZIKLOA (LH3-LH4):	
▪ Munduko oka	13
▪ Kulturarteko mitologiak	14
◦ HIRUGARREN ZIKLOA (LH5-LH6):	
▪ Kulturarteko Trivial-a	15
▪ Scape Room	16
• ERANSKINAK	17

SARRERA

Mila Kolore programa Ongi Etorri Eskolara proiektuaren barnean kokatzen da. Proiektu honek, Gipuzkoako ikastetxe desberdinei eskola eta komunitate inklusibo baterantz kulturarteko eredu pedagogikoa martxan jartzeko akonpainamendua eskaintze die, euskara funtsezko elementutzat hartuz ikasle guztien aukera-berdintasuna sustatzeko.

Gaur egun, Ongi Etorri Eskolara proiektua aurrera eramaten den ikastetxeetan ikasturtero egiten den Kulturarteko ikerketaren arabera, jatorria beste herrialde batean duen ikasleriaren portzentaiaren batz bestekoa %20aren ingurukoa da, hau da, 5 ikasletik 1ek du jatorria beste herrialde batean.

Eskolek, egoera berri honetara egokitzeko eta honekin batera sortu diren erronka berriei aurre egiteko, aldaketak beharrezkoak dituzte, bai eskolan bertan, (ikasgeletan, eskolako sisteman) eta baita administrazioetako hezkuntza politikan ere. Hezkuntza sistemak beharrezkoak dituelako eskoletan kulturarteko hezkuntza era eraginkorren landuko dituen tresnak.

"Mila Kolore" programa lehen eta bigarren hezkuntzako irakasleei tresnak eskaintzeko helburuarekin sortzen da, ikasleekin kultura aniztasuna kulturarteko ikuspegitik eta modu ludikoan landu dezaten. Ikasturte bakoitzean, elkarbizitzarako kulturarteko hezkuntza ardatz duten jardueren bilduma bat osatzen du programak. Jarduera horien helburua ikasleekin arrazakeriaren aurkako hezkuntzaren, bizikidetzaren, elkar ezagutzaren eta justizia sozialaren inguruko balioak, esperientziak eta gogoetak lantzea da. Aldi berean, kultura aniztasuna ikusarazi eta balioan jarri nahi da.

Edizio honetan, alde batetik, kulturarteko hezkuntza zertan datzan eta haren helburuak zein diren irakurri ahal izango duzue. Bestalde, bilduman bildutako jarduera bakoitzaren helburuak, metodologia, materiala eta emaitzak aurkituko dituzue. Txosten honetan, zehazki, 2025-2026 ikasturtean Mila Kolore programan aurrera eraman diren dinamika guztiak biltzen dira.

KULTURARTEKO HEZKUNTZA

GUZTIONTZAKO HEZKUNTZA

Immigrazioak gero eta gizarte pluralago batean bizitzea dakar, hainbat hizkuntza eta kultura nahasian. Ikastetxeek, gizartearen ispilu direnez, hainbat jatorri eta kulturatako ikasleak jasotzen dituzte. Beraz, nahitaezkoa da hezkuntzaren kulturarteko ikuspuntua lantzea eta errespetuzko, tolerantziatzeko eta elkartasunezko balioak sustatzea, jarrera arrazista eta xenofoboak saihesteko.

Kulturarteko ikuspegiak, kultura guztietara (norberarenera ere bai jakina) hurbilketa kritikoa egiteko eta beste kultura, bizimodua ezagutzeko eta konektatzeko nahia pizten duen hezkuntza-eredua sustatu behar du, inork ez dezan pentsa berea besteenaren gainetik dagoenik. Azken finean, giza eskubideen eta eskubide zibil eta politikoen berdintasunean sinestea da kontua, eta edozein bazterketa-mota eragozteko. Kulturaren inguruko iritziak testuinguru berean elkartzen diren kulturen arteko harremanak baldintzatuko ditu. Ongi Etorri Eskolara proiektuan, kultura, gizartea osatzen duten pertsonak bereganatu duten ezagutza, sinesmen, arte, moral, eskubide, ohitura, eta gaitasun edo moldeen multzo bezala ulertzen da. Ikuspegi horrek, balioekin, jokabide-irizpideekin eta gizalegearekin du zerikusia. Kontzeptuaren ikuspegi zabal horretatik abiatuta, kulturarteko hezkuntzak kontaktuan dauden talde guztiak biltzen ditu, ez bakarrik kultura hegemonikotik kanpo dauden kulturak.

Beste kultura bat ulertu edo interpretatzeko prozesuak ezinbestean dakar hurbilekoak eta urrunekoak, antzekoak eta desberdinak, norberarenak eta besteenak konparatzea. Hurbilketa hori berezitasun exotikotzat ez hartzea da garrantzitsuena, informazio eta esperientzien benetako eta errespetuzko elkartruketzat baizik. Ingurune jakin batean elkartzen diren kulturen arteko harremanen aurrean hartzen den jarrera eta jokabidea da kultura arteko hezkuntza. Eusko Jaurlaritzako “Harrera plana. Ikasle berrien eta haien familien harrera bideratzeko jardunbideak” gida praktikoa jasotzen den moduan (2019-20), elkar hobeto ezagutzea eta hobeto ulertzea izango dira kulturarteko hezkuntzaren oinarriak. Horren bidez, elkarbizitzarako arauak praktikan jarriko dituen erreferentzia ingurunea sortzea lortuko da, desberdintasunak errespetatuko dituen ingurunea, hain zuzen.

KULTURARTEKO HEZKUNTZA

GUZTIONTZAKO HEZKUNTZA

1 · Kulturarteko hezkuntza ikastetxe osoaren proiektua da, eta gutxienez hiru alderditan ikusi beharko litzateke: erakunde-dokumentu guztietan islatzea, ikastetxeak bere irakasleentzat diseinatzeko dituen prestakuntza-planetan egotea, eta establezimenduaren antolakuntza-erabakietan eragina izatea.

2 · Kultura arteko hezkuntza komunitate-proiektu bat da, familiak, erakundeak, eta auzoko edo hiriko beste hezkuntza-agentzia batzuk biltzen dituenak. Alderdi horren garrantzia da sozializazio primarioa edo familiarra bigarren hezkuntzakoarekin edo eskolakoarekin bateratzea funtsezkoa dela hezkuntza-mota horren helburuetarako.

3 · Kultura arteko hezkuntza “eskola-, pertsona- eta gizarte-arrakasta duen proiektua” da. Horri dagokionez, autoreak planteatzen du mota horretako hezkuntzaren lorpen nagusietako bat ikasleen artean autoestimu positiboa sustatzea dela, eta autobalorazio hori beste batzuekin harremanetan eraikitzea.

4 · Kultura arteko hezkuntza proiektu pedagogikoa da, eta “profesionaltasuna, egiten jakitea, teknika eta metodoa, baliabideak eta materialak, adibideak eta praktikak, lanbidea” eskatzen du. Kultura arteko eskola batean, antolaketa garrantzi handia hartzen du; izan ere, ikasleen ikaskuntzan oinarritutako eta banakako desberdintasunei arreta jartzen dien irakaskuntzak alde aurretik lan zehatza eta zabala eskatzen du, zereginak eta jarduerak planifikatu eta prestatzeko.

5 · Kultura-proiektu bat da: hezkuntza-sistema batek eskola-curriculumak kulturartekatzea erabakitzen duenean, lehenik eta behin onartu behar du “ezagutza ofiziala [...] ideologia menderatzailea transmititzen duen gizarte-erakuntza bat dela” . Adibidez, luzaroan justifikatu izan da Mendebaldean kolonizazioa eta are sarraskia ere.

6 · Kultura arteko hezkuntza proiektu etikoa da: “Ikastetxeetan espazioa, denbora eta helburuak partekatzen dituzte pertsona eta talde desberdinek, baina autorearen arabera, elkarrekin bizitzen ikastea da, ez bairik gabe, XXI. mendeko hezkuntzaren funtsezko erronketako bat.

HAUR HEZKUNTZA

HH4 eta HH5 mailetarako kulturartekotasunaren gaia modu dinamiko eta dibertigarri batean lantzeko helburuarekin sortutako dinamikak biltzen dira ondoren.

Alde batetik HH4rako dinamika bat proposatzen da, ordubeteko iraupena duena. Hau, leku ezberdinetako kometak ezagutuz kulturartekotasunari heltzeko modu ederra da.

Beste aldetik, HH5erako, beste ordubeteko dinamika bat sortu da. Hemen, ipuin bat kontatuko da, modu interaktibo batean, eta modu honetara, haurrek, baliabide naturalen eta kulturarteko hezkuntzaren arteko lotura ulertuko dute, kontzientziazio lan bat eginez.



HH4

Helburuak:

- Kultura ezberdinetako istorioak ezagutzea
- Kultur aniztasuna bultzatzea
- Haurren sormena sustatzea
- Kulturartekotasunaren ideiak artearen bidez bereganatzea

Materiala:

- Kometen istorioa, irudiak ([Eranskina 1](#))
- Kometak sortzeko oinarria (egurrezko edo plastikozko makilak, kartoizko kometaren oinarria)
- Margoak, errotulagailuak
- Koloretako paperak, kartulinak, gometsak, basura boltsak, sokak
- Kola

Espero diren emaitzak

- Hurrek artearen bidez kultura ezberdinak ezagutzea
- Kultura ezberdinetako balioak eta ezaugarriak positiboki jasotzea
- Kultura ezberdinekiko errespetua lantzea

Iraupena

Ordubeteko saioa izango da

MUNDUKO KOMETAK

Deskribapena:

Ekintza honek kultura ezberdinetako istorioak ezagutarazi nahi ditu eta horretarako kontakizun bat entzuteaz gain, beraien kometa propioak sortuko dituzte, kometen hegaldia egiteko aukerarekin.

Nondik-norakoak

1-Saioari hasiera emateko, ikasleei kulturartekotasunaren inguruko jarduera egingo dutela adieraziko zaie eta jarraian jardueraren nondik norakoa azalduko zaie.

2-Behin jarduera azalduta, hurrei galdera batzuk egingo zaizkie. Jarraian, kontakizun bat azalduko zaie herrialde ezberdinetako kometen istorioak ezagutzeko eta bitarte horretan herrialde ezberdinetako kometen irudiak erakutsiko zaizkie.

3-Jarraitzeko, ikasleak hiru talde ezberdinetan banatuko dira eta kometen istorietatik gehien gustatu zaizkien ezaugarriekin beraien kometa propioa sortu beharko dute.

4-Ikasle guztiak kometa bukatu ondoren, kometen hegaldia egingo da eta saioari amaiera emateko, hausnarketa txiki bat egingo da.



Helburuak:

- Ipuinaren bidez, munduko leku ezberdinetako pertsonen errealitateak ezagutzea, modu positibo batean
- Enpatia eta hausnarketa lantzea
- Baliabide naturalekiko ardura hartzea eta arazoen aurrean irtenbide ezberdinak planteatzea

Materiala:

- Bastet-en ipuina eta marrazkia ([2. Eranskina](#))
- Margoak
- Pankarta
- Kola
- Laberintorako materiala

Espero diren emaitzak

- Hurrek baliabide naturalen eta kulturarteko hezkuntzaren arteko lotura egitea
- Kontzientiazio lan bat egitea, egunerokoan egiten diren ekintzan ondorioak ulertuz
- Herrialde bakoitzak bere aberastasuna duela ikustea

Iraupena

Ordu bateko saioa izango da

Deskribapena:

Bastet-en ipuina kontatuko da, baina modu interaktibo batean. Ipuina argazkiekin kontatzen joateaz gain, tartean galderak zein dinamikak egingo dira, hausnarketa bultzatuz.

Nondik-norakoak

1-Saioari hasiera emateko, ikasleei kulturartekotasunaren inguruko jarduera egingo dutela adieraziko zaie eta jarraian jardueraren nondik norakoa azalduko zaie.

2-Ipuina kontatzeko garaian, ekintzak interaktiboak izango ditu tartean ulermen handiagoa izateko. (Azalpena eranskinetan)

3-Amaitzeko, hausnarketarako galderak egingo zaizkie, eta ipuinaren inguruko hausnarketa egingo da talde handian.



LEHEN

HEZKUNTZA

Atal honetan, Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzendutako kulturartekotasuna lantzeko dinamika desberdinak azaltzen dira. Maila bakoitzerako 2 dinamika desberdin proposatzen dira eta dinamika bakoitzak, Haur Hezkuntzako antzera, ordu bateko iraupena izango du.

Jarduera dinamiko hauen helburua kultura aniztasuna landuz aurreiritzi eta estereotipoen inguruan lanketa egitea da, besteak beste, ikasleak sentzibilizatu eta ikuspegia alda dezaten.



LH1-LH2

1.SAIOA

Helburuak:

- Kulturartekotasunaren ideia barneratzea.
- Ikasleen artean enpatia sustatzea.
- Ikasleen arteko elkarlaguntza indartzea.

Materiala:

- Laukitxoaren istorioa (Eranskina 3.1.)
- Laukiak eta borobilak
- Kartulina borobila den atearekin
- Etxe handi baten irudia (Eranskina 3.2.)
- Ikasle bakoitzaren argazkia
- Margoak, errotulagailuak eta kola

Espero diren emaitzak

- Hurrek ekintzak sortuko dizkieten sentimenduetatik gaur egungo errealitateko egoerekin konektatzea
- Arazoen aurrean irtenbideak proposatzeko gaitasuna lortzea
- Haurrak ondokoan paperean jartzea

Iraupena

Ordu bateko saioa izango da

LAUKITXOA

Deskribapena:

Laukitxoaren dinamikan ikasle bakoitzak figura bat izango du, borobila edo laukia dena. Bestetik, ate handi bat egongo da eta ikasle bakoitzak bertatik sartzen saiatu beharko du. Denak ez dira bertatik sartuko, beraz, denen artean irtenbide bat bilatu beharko dute denak atetik sartzeko.

Nondik-norakoak

1-Lehinik eta behin, saioari hasiera emateko, ikasleei kulturartekotasunaren inguruko jardura egingo dutela adieraziko zaiei eta jarraian jardueraren nondik norakoa azalduko zaiei.

2-Ikasle bakoitzari figura bat banatuko zaio batzuei borobila eta besteei laukia. Gelan ate bat egongo da eta ikasle bakoitza bertatik sartzen saiatuko da.

3-Pertsona batzuk bertatik sartuko dira baina beste batzuk duten formagatik kanpoko aldean geratuko dira eta bertan hausnarketa bultzatuko da. Horretarako, irtenbidea bilatuko da. Amaitzeko, denak sartzerakoan etxe bat apainduko dute ikasle guztiak bertan egongo dira.



LH1-LH2

2.SAIOA

Helburuak:

- Beraien jokabideez hausnartzea eta kulturarteko ikuspegitik egokiak diren jokabideak ezagutzea
- Jokabide hauek guztion esku daudela ikustea, hau da, kolektiboki ez bada, aldaketarik izango ez dela ulertzea

Materiala:

- Petatxoak
- Margoak
- Globoaren irudia
- Ikasleen argazkiak
- Munduko mapa proiektatuta
- Kola
- Galderen zerrenda ([4.1 Eranskina](#))

Espero diren emaitzak

- Hurrek bidaiatzearen pribilegioaz hausnartzea eta bidaiatzeko modu egokiak barneratzea
- Hurrek jarrera egokiak barneratzea, kulturartekotasunaren ikuspegitik

Iraupena

Ordu bateko saioa izango da

MUNDUTIK BIDAIATUZ

Deskribapena:

Globo baten bidez bidaia bat egingo dela azalduko zaie, baina honek zuloak dituen zehar egitea ezinezkoa da. Zuloak tapatzeko petatxuak lortzeko galdera batzuei erantzun beharko die, eta zulo guztiak tapatutakoan, hegan egingo dute denok batera.

Nondik-norakoak

1-Saioari hasiera emateko, ikasleei kulturartekotasunaren inguruko jarduerak egingo dituela adieraziko zaie.

2-Zuloak tapatzeko bakoitzari petatxu bat banatuko zaio, eta apaindu egingo dute.

3-Taldeka galdera batzuk erantzun beharko dituzte, erantzun egoki bakoitzeko, petatxu bat jarriko dute.

4-Petatxu guztiak jarritakoan, bidaiatu egingo dute.

5-Bukatzeko, hausnarketa bat egingo da, saioan ikasi denaren inguruan.



LH3-LH4

1.SAIOA

Helburuak:

- Kultura ezberdinak ezagutzea eta balioan jartzea
- Hausnarketa egitea izan dituzten edo ikusi dituzten egoeren inguruan
- Kulturarteko hezkuntzak zertarako balio duen ondorioztatzea

Materiala:

- Oka jolasaren estruktura
- Okaren zehaztasunak (5. Eranskina)

Espero diren emaitzak

- Ikasleek kultura ezberdinen aberastasuna positiboki baloratzea
- Ikasleek bizi dituzten egoeren autokritika egitea eta tresnak jasotzea aurrerantzean hobeto jokatzeko
- Ikasleek kultura ezberdinak ezagutzea kulturarteko hezkuntzak zertarako balio duen ondorioztatuz

Iraupena

Ordu bateko saioa izango da

MUNDUKO OKA

Deskribapena:

Kultura ezberdinak ezagutu eta kultura aniztasunaz hausnartzeko oka jolasa egingo da. Ondoren, saioan zehar ikasi dena edo gehien gustatu zaiena hartu eta irudikatu egingo dute puzzlearen pieza bakoitzean, guztien artean puzzle osoa osatzeko.

Nondik-norakoak

1-Lehinik eta behin, saioari hasiera emateko, ikasleei kulturartekotasunaren inguruko jarduera egingo dutela adieraziko zaiei eta jarraian jardueraren nondik norakoa azalduko zaiei.

2-Taldeka jarri eta oka jolasa hasiko da. Dinamika honetan, erortzen diren posizioaren arabera erronka bat edo beste bat egin beharko dute.

3-Ondoren, bakoitzari puzzle baten zati bat emango zaio, eta dinamikan ikasi duten zerbait irudikatzea eskatuko zaie.

4-Bukatzeko, banaka egindako hausnarketa azaltzen joango dira, eta puzzlea osatzen, gure jakintza guztiak batuta.



LH3-LH4

2.SAIOA

Helburuak:

- Munduko mitologia ezberdinak ezagutzea
- Kultura ezberdinen antzekotasunetaz ohartzea eta honen inguruko hausnarketa bultzatzea
- Ikasleen sormena piztea

Materiala:

- Pankarta
- Margoak
- Boligrafoak
- Mitologiako pertsonaien istorioen audioak ([6.1. Eranskina](#))
- Zeloak

Espero diren emaitzak

- Mitologiak kulturaretektotasunarekin daukan lotura ulertzea
- Mitologia oinarri bezala hartuta balioak eskuratzea
- Kulturen artean dauden ezberdintasunak positiboki ulertzea

Iraupena

Ordu bateko saioa izango da

KULTURARTEKO MITOLOGIAK

Deskribapena:

Talde txiki bakoitzak herrialde ezberdin bateko mitologiako istorioaren azalpena entzungo du. ikasle bakoitzak istorioaren entzundakoa marraztu beharko du. Ondoren, talde handian bakoitzak sortu duen pertsonaiaren azalpena emango du eta hausnarketa egingo da.

Nondik-norakoak

1-Saioari hasiera emateko, ikasleei kulturaretektotasunaren inguruko jardueraren egingo dutela adieraziko zaie eta jarraian jardueraren nondik norakoa azalduko zaie.

2-Ikasleak talde ezberdinetan banatuko dira eta talde bakoitzari munduko herrialde bateko pertsonaia mitologiko baten deskribapen audioa entzungo dute jatorrizko hizkuntzan eta euskaraz.

3-Bakoitzak istorio hori oinarri duela marraztu beharko du irudikatu duen pertsonaia.

4-Ondoren, talde txiki bakoitzak egindako marrazkiak eta entzundako historia erakutsi eta kontatu beharko dizkie ikaskideei. Amaitzeko, hausnarketa egingo da.



Helburuak:

- Kulturartekotasunaren kontzeptuak modu dinamik batean barneratzea.
- Gaur egun gizartean kultur aniztasunarekin dauden aurreiritziak murriztea.
- Ikasle bakoitzak barne hausnarketa burutzea.

Materiala:

- Trivialeko taula
- Trivialean jolasteko fitxak eta dadoak
- Trivialeko euskarriak ([Z. Eranskina](#))

Espero diren emaitzak

- Ikasleak kulturartekotasunak duen garrantzia ulertzea.
- Ikasleak egiten dituzten ekintzen inguruko hausnarketa egitea.

Iraupena

Ordu bateko saioa izango da

KULTURARTEKO TRIVIAL-A

Deskribapena:

Trivial ez lehiakor bat egingo da kulturartekotasunaren inguruko kontzeptuak eta balioak barneratzeko. talde guztiaren artean ahalik eta galdera gehien asmatuz garaipen kolektiboa lortuko da.

Nondik-norakoak

1-Saioari hasiera emateko, ikasleei kulturartekotasunaren inguruko jarduera egingo dutela adieraziko zaie eta jarraian jardueraren nondik norakoa azalduko zaie.

2-Ikasleak bi taldetan banatuko dira eta talde bakoitzak Trivialeko taula bat edukiko du.

3- Ikasleek txandaka dadoa botatzen hasiko dira eta tokatzen zaien froga burutu beharko dute Trivialean aurrera joateko.

4-Bertan aurkituko dituzten probak honako hauek izango dira:

- Egia ala gezurra, galderak erantzun, hitzak definitu eta esaldiak zuzendu.



Helburuak:

- Kulturartekotasunaren oinarri diren kontzeptu ezberdinak barneratzea modu dinamiko batean.
- Kulturarteko erreferente ezberdinak beraien egunerokoan txertatzea.
- Kultura ezberdinak eta hauen ezaugarriak modu positibo batean ulertzea.

Materiala:

- Txarteltxoak (8.2. + 8.3. Eranskina)
- Kartulinak
- Hiztegiak
- Hari bat
- Sobreak
- Nondik-norakoak (8.1. Eranskina)

Espero diren emaitzak

- Ikasleak begirada kritikoa erabiliz egun gertatzen diren egoera arrazista eta antzekoak antzematea.
- Ikasleek kulturarteko jardunerako oinarrizkoak diren kontzeptu zein jarrerak barneratzea.

Iraupena

Ordu bateko saioa izango da

SCAPE ROOM**Deskribapena:**

Scape Room bat egingo da kulturarteko hezkuntzaren ikuspegi eta ezaugarri ezberdinak eskuratzeko. Taldeka jolas bat izango da eta erronka ezberdinak gainditu beharko dituzte, beraien jakintza erabiliz eta kontzeptu berriak barneratuz, atea ireki ahal izateko.

Nondik-norakoak

1-Saioari hasiera emateko, ikasleei kulturartekotasunaren inguruko jarduera egingo dutela adieraziko zaie eta jarraian jardueraren nondik norakoa azalduko zaie.

2-Ikasleei istorio bat kontatuko zaie Scape Room-a kokatzeko eta jarraian kulturartekotasunarekin lotutako froga ezberdinak egin beharko dituzte. (8.1. Eranskina)

1.froga: hizkuntza ezberdinak lanketa.

2.froga: baloreak landuko dira.

3.froga: herrialde ezberdinetako erreferenteak landuko dira aurkezpen bidez.

4.froga: munduko arazo ezberdinentzat irtenbideak proposatu beharko dituzte.






ERANSKINA 1

MUNDUKO KOMETAK:

**KONTAKIZUNA ETA MUNDUKO
KOMETA EZBERDINEN IRUDIAK**



1.1. KONTAKIZUNA:

Duela urte asko asko Txinan zeruan kometak dantzan ikusten hasi ziren eta herriatarrak aho zabalik geratu ziren orain arte ez zutelako horrelakorik ikusi. Ohartu ziren kometak zerura bidaltzen ari zirela, zorte txarra uxatzeko eta herritarrak poz pozik jarri ziren hortik aurrera zorte onez inguratuta biziko direlako.

Handik urte batzuetara, Guatemalara kometa bat iritsi zen eta herritarrak kometa gehiago sortu zituzten, beraien familiakidei mezuak bidaltzeko sortuak izan zirelako, haiei lasaitasuna eta maitasuna bidaltzeko. Kometetan esaldi ezberdinak idatziak zeuden: “maite zaitut” “besarkada bat bidaltzen dizut”

Indian, berriz, kometak festa famatu batean ikusi zituzten lehen aldiz, izan ere, udaberriari ongi etorria emateko festa egiten delako eta hasiera emateko, bakoitzaren etxetik oso koloretxuak diren kometak eguzkira bidaltzen dituzte eta mezu hau esaten dute denak ozenean “ekarri guregana egun eguzkitsu eta alaitsuak”

Azkeneko geltokia... Japon da. Bertako kometak oso bereziak dira, izan ere, kometa koloretxuak sortzen dituzte eta pertsonai mitologikoak agertzen dira. Gainera, kometak historio eta amets asko ezkututzen dituzte. Beraz, argi egon noizbait horrelakorik ikusten baduzue historio bat gordetzen dutelako.

Gure gelara kometa bat iritsi dela aipatu digute...goazen ikustera zein mezu iritsi zaigun! Kometan idatzitako esaldia→ “herrialde guztiak ezagutzerakoan, eta kultura guztiak errespetatzerakoan kolore ezberdinak nahasten dira eta mundua ederragoa bihurtzen da”

Istoriaa kontatu bitartean, ikasleei kometen argazkiak jarriko zaizkie beraien kometa propioa sortzerako garaian ideiak edukitzeko.

1.2. Munduko kometa ezberdinen irudiak:

Txinako irudiak:




A large, circular float with a vibrant rainbow border and intricate, colorful patterns. In the center is a portrait of a man with a beard and a blue head covering. Above the portrait, there is a sign with text in Spanish. The float is surrounded by a large crowd of people in a green, hilly landscape.



Japoneko irudiak:



Indiako irudiak:



ERANSKINA 2

IPUIN INTERAKTIBOA:

**IPUINAREN ESTEKA ETA ISTORIOAREN
NNDIK NORA KOAK**



ESTEKA HEMEN → [IPUINAREN ESTEKA](#)

2.1. IPUINA ETA TARTEKO DINAMIKAK

1. Nilo ibaia oso luzea da, Afrikako ibairik luzeena. Ibaiaren punta batetik oinez abiatuko bagina, urtebete baino gehiago beharko genuke bukaeraraino iristeko. Hau da hau!
2. Bastet dut izena, eta Niloren ertzean dagoen herri batean bizi naiz, Egipton. Guretzat ura altxor bat da. Niloko ur-goraldiei esker, soroak, fruta-arbolak, baratzeak eta abereak ditugu.

(Bastet-en irudi bat emango zaie, amaieran margotzeko, norberak irudikatzen duen Bastet horrekin konektatzeko)

3. Ta-Setirekin eta Serket txikiarekin batera eskolara oinez joatea asko gustatzen zait. Batez ere, gure auzoko merkatua zeharkatzen dugunean, hain da koloretsua eta bizia! Eta frutek zer usain goxoa duten! Datila da nire gogokoa!

(Zuek nola joaten zarete ikastetxera? Denbora luzea behar duzue bertara iristeko? Badakizue haur batzuk bide oso luzeak egin behar izaten dituztela ikastetxera joateko? Zer iruditzen zaizue? Bururtatzen zaizue ikastetxera joateko beste moduren bat?)

4. Gure herria inguratzen duen basamortuak liluratu egiten nau. Baita lasaitu ere. Ondarrezko itsasoa dirudi... Baina hemen ia inoiz ez duenez euririk egiten, Nilo gabe ezin izango ginatke hemen bizi, leku harrigarrieta eder honetan!

(Nondik dator guk erabiltzen dugun ura? Badakizue jendeak zer-nolako esfortzua egin behar duen ura edan ahal izateko? Zer gertatzen da guk ur asko erabiltzen badugu? Uraren erabileraren inguruan hausnartu)

5. Ilunabarrean, etxera afaltzera joan aurretik, tenplu zaharrean Ta-Seti, Serket eta hirurok biltzen gara. Gure babesleku sekretua da.

6. ---Ama, azkenaldian katuen marrakek ez didate lorik egiten uzten.

---Arrotzak oso gogoko ez dituztelako dela uste dut, laztana.

---Ba ni ere ez naiz haietaz fidatzen, den-denaren jabe izango balira bezala jokatzten dute eta.

(Zein dira irudian atzean kotxean dabiltzanak? Zertan ari dira? Zergatik daude horrenbeste kotxe? Nolabait haurrek horiek "gu" garela ulertu behar dute, beraientzat mehatxua garela)

7. Biharamunean, goizean goiz etxetik atera naiz etxerako ura hartzeko, baina...

---Ene bada! Nilo lehortu egin da. Zer egingo dugu urik gabe?

IPUINA ETA TARTEKO DINAMIKAK (JARRAIPENA)

(Zertarako erabiltzen duzue ura zuek? Pertsona honek orain, urik gabe, ezingo du hori dena egin. Zer gertatu da urarekin? Nork lapurtu du ur hori? Lapur honek badu eskubidea beste herri bateko ura lapurtzeko?)

8.Gaur oso urruti dagoen leku bateraino joan behar izan dugu ur bila, eta ezin izan gara eskolara joan, lagunekin jolastu, ezta familiarekin egon ere. Ez da bidezkoa!

(Laberinto moduko bat jarri, eskolara bidea zein zaila den irudikatzeko. Ondoren, hausnarketa → gustatuko litzaiguke bide hau egin behar izatea eskolara joan eta eskolatik itzultzeko?)

9.---Bastet, Niloko urik gabe ezingo gara luzaroan hemen bizi! Eta animaliarik edo landarerik ez da geratuko... kexatu da Ta Seti

---Ez kezkatu! Konponbidea aurkituko dugu!

(Konponbideren bat bururatzen zaizue? Zer egin dezakegu?)

10.Atzoko bileran ura zergatik desagertu den ikertzera joatea erabaki genuen

---Agian Niloko ur guztia edan dugu! – bururatu zaio Serket txikiari

11.Begira! Arrotzek urtegi erraldoia eraiki dute eta urak ezin du aurrera egin!

12. ---Arraioa! Ura lapurtzen ari dira! Haientzat bakarrik nahi dute! Izugarri hasarretu gara!

---Nola konponduko dugu hau guztia, Bastet?

13.Orduan, espero ez genuen laguntza hurbiltzen ikusi dugu, eta babespera abiatu gara korrika.

14. BBBBRRRRRRRRUUUUUUUUUUUUUMMMMMMMMMMMMMMM!!!!!!!

15.Harea ekaitzaren laguntzaz ura askatzea lortu dugu, eta gogotsu ospatu dugu, PLISTI-PLASTA!

16.Ibaia beti bere ibilgura itzultzen den arren, guk geure herrira jo dugu, pozik eta alai, etxera.

17.Urak ez du jaberik, guztiona delako. Eta guztiona dena, denon artean zaindu eta babestu behar dugu.

HASIERAN BANATUTAKO BASTETEN IRUDIA MARGOTU: Ondoren, taldeka, paisaia margotuko dute. Guk, paper handi batean paisaiaren irudia eramango dugu eta taldeka, ezaugarri bat edo beste margotzeko esango zaie, horrela, paisaia era margotuta izango dugu.

AMAIERAN → Konponbidea gelan gera dadila. Uraren arazoari konponbidea emateko hausnarketa egingo da eta hitz klabeak paperean jarriko ditugu. Amaieran, bakoitzak bere Bastet-en irudia pegatuko du bertan.




2.3. BASTET IPUINA



ERANSKINA 3

LAUKITXOA:

**ISTORIOAREN NONDIK NORAKOAK ETA
ETXEAREN IRUDIA IKASLEEN ARGAZKIAK
TXERTATZEKO**



3.1 ISTORIOAREN NONDIK-NORAKOAK

Ikasle bakoitzari figura bat emango zaio borbiltxoa edo karratutxoa, bakoitzari emango zaion figura beraien arroparen araberakoa izango da. Ikasle bakoitzak 10 minutu izango ditu tokatu zaiona apaintzeko.

Bakoitzak figura apaindu ondoren, banaka atletik sartzen saiatuko dira ikasleak. Bertan aipatuko da etxe haundi batera iritsiko direla eta momentu horietan festa bat antolatua dagoela. Atletik beraien figura sartzea lortzen badute, apatuko zaiei sorpresa bat lortuko dutela, baina horretarako beharrezkoa izango da ikasle guztiak atletik sartzea. Ikasle guztiak sartzen saiatzerakoan, ikusiko da batzuk kanpoan geratu direla ez direlako atletik sartzen. Atea borobila da eta laukiak direnak duten formagatik ez dira bertan kabitzen. Beraz, galdera batzuk egingo dira: Zer gertatu da? Zein da arrazoa batzuk kanpoan geratzearena? Nola sentitu zarete barrura sartu zaretenak? Nola sentitu zarete kanpoan geratu zaretenak? Kanpoan geratu zaretenak barrura sartu nahi duzue? Zer gertatzen da pertsona bat talde baten kanpoan geratzen denean?

Galderak erantzun ondoren, dinamikarekin jarraituko da. Barrura sartzea lortzeko honako hau proposatuko zaiei ikasleei. Zer egin dezakete laukitxoak atletik sartzeko? Nola lagunduko diogu borobil forma edukitzen? Luzatu, buruz behera, tolestu etabar. egin daiteke baina hala ere ikasleak konturatuko dira ezin izango duela atletik sartu bere forma ezin delako modu honetara aldatu.

Borobilak diren ikasleei proposamen bat egingo zaiei. Esan denak ozenean: Izan borobila! Jarraian ikasleei honako galdera hau egingo zaiei. Zer gertatu da? Beraien erantzuna izango da forma berdina edukitzen jarraitzen du. Beraz, hurrengoa proposatuko zaie: Borobilak zaretenei guraizeak banatuko zaizkie eta karratutxoa den beste pertsonarengana hurbilduko dira. Orain karratutxoak zer egin diezaiokezue karratxutxoak direnei? Norbaitek iskinak moztu esango du eta bestela guk lagunduko diegu: Forma aldatzerik izango genuke guraizeekin?Ikasleei probatzeko esango diegu, modu honetara konturatuko dira ezin dela moztu eta emango zaien mezua honako hau izango da: Zergatik izan da ideia txarra iskinak mozten saiatzea? Pertsona bakoitzak duen ezaugarriak ezin dira moztu ezta aldatu ere, beraz orain borobiltxoak bilera bat egin beharko dute eta beste irtenbide bat bilatu beharko dute.

Atea moztea da irtenbidea baina ikasleek ez badigute komunikatzen honako hau galdetuko zaiei. Esan dugu pertsona edota figura baten ezaugarriak ezin direla aldatu, beraz zein beste gauza aldatu dezakegu laukitxoaren atetik sartu ahal izateko? Honekin ikasleei atea modifikatzea eskatuko zaiei eta laukitxoak diren guztiak etxe barrura sartuko dira. Zertan laguntzen du ateak handiagoak badira? Zer egin dezakegu ateak handiagoak izan daitezen?. Denak barrura sartzea lortzen dutenean etxe haundi bat emango zaiei apaintzeko eta etxeko lehio bakoitzean bakoitzak bere aurpegiaren argazkia jarri beharko du. Jarraian gizartean gertatzen diren gertakariekin hausnarketa burutuko da.

Atea moztea da irtenbidea baina ikasleek ez badigute komunikatzen honako hau galdetuko zaiei. Esan dugu pertsona edota figura baten ezaugarriak ezin direla aldatu, beraz zein beste gauza aldatu dezakegu laukitxoaren atetik sartu ahal izateko? Honekin ikasleei atea modifikatzea eskatuko zaiei eta laukitxoak diren guztiak etxe barrura sartuko dira. Zertan laguntzen du ateak handiagoak badira? Zer egin dezakegu ateak handiagoak izan daitezen?. Denak barrura sartzea lortzen dutenean etxe haundi bat emango zaiei apaintzeko eta etxeko lehio bakoitzean bakoitzak bere aurpegiaren argazkia jarri beharko du. Jarraian gizartean gertatzen diren gertakariekin hausnarketa burutuko da.

3.2. AMAIERAN ETXEAN IKASLEEN ARGAZKIAK IPINTZEKO IRUDIA



ERANSKINA 4

MUNDUTIK BIDAIATUZ

GALDERAK:



4.1) GALDERAK:

1. Beste herrialde batera joango bazinateke eta ez bazenute hizkuntza ulertuko, zer beharko zenukete?
2. Nola lagunduko genioke iritsi berri den pertsona bati hizkuntza ikasten?
3. Zer egingo dugu iritsi berri den batek pertsona gehiago ezagutzeko?
4. Zer egingo dugu iritsi berri den pertsona bat ikasgelan eroso sentitzeko?
5. Zer egingo dugu jolasten ari garela norbait baztertu dutela ikusten badugu?
6. Ongi dago baztertzailen laguna izatea? Zergatik?
7. Bazterketa kasu bat ematen denean ikusi baina ezer egiten ez duen horrek zerikusia du?
8. Ongi esanda dago "haragi kolorea"? Zergatik?
9. Zein eragin dute guk erosten ditugun gauza askok gainontzeko herrialdeetan?
10. Zer egin dezaket nire klasekideak gure hizkuntza ulertzen ez duenean?
11. Kotxeek behar duten gasolina gure herrialdean sortzen da? Errespetatzen al dira bertako herritarrak?
12. Esan gauza bat beste kultura batetik gustatzen zaizuna

GALDERAK:



13. Guk erabiltzen dugun ur kantitateak eragina du beste herrialde batzuetan? Nola?
14. Nola senti daiteke haur bat beste herrialde batetik etortzen denean eta berria denean?
15. Zer egin dezakegu pertsona berri bat taldean ongi sentitu dadin?
16. Nola erakusten dugu lagunak garela, hizkuntza bera ez badugu hitz egiten?
17. Zer gertatzen da guk beti arropa berria erosten badugu, zaharrak oraindik ondo daudenean?
18. Gure mugikor edo tablet berriak egiteko, zer behar da?
19. Zer da zuretzat errespetua?
20. Zer ikasi dezakegu gurekin bizi diren beste kulturetatik?
21. Zein hitz ezagutzen duzu euskaraz eta gazteleraz ez dena?
22. Zein antzekotasun ditugu munduko pertsona guztiak?
23. Zergatik da garrantzitsua pertsona guztien ahotsa eta iritzia kontuan hartzea?
24. Zergatik da garrantzitsua laguntza eskatzeko beldurrik ez izatea?

ERANSKINA 5

MUNDUKO OKA

+

PUZZLEA




5.1) OKAREN DISEINUA

1 -> Pista ezberdinekin zein hizkuntzatz ari garen asmatu	2 -> Dantza hau egin	3 -> Asmatu ondorengo fruitua zein jatorritakoa den	4 -> Kontzeptuak	5 -> Esango dizuegun tokiko 2 gauza positibo esan	6 -> Asmatu abesti hau nongoa den
7 HASIERARA	8 -> Ieroglifikoa	9 -> Esan egoera bat non zure lagun bat baztertuta sentitu den	10 -> Esan egoera bat non lagun bat baztertu duzun	11 -> Asmakizuna	12 -> Ieroglifikoa
13 -> Baztertuta sentitu zaren egoera bat kontatu	14 -> Etorri berri den pertsona bati laguntzeko egin dezakezun hiru ekintza esan	15 -> Egia ala gezurra?	16 -> Galdera	17 -> Ieroglifikoa	18 -> Kontzeptuak
19 -> Galdera	20 -> Asmatu abesti hau nongoa den	21 HASIERARA	22 -> Ieroglifikoa	23 -> Esan egoera bat non zure lagun bat baztertuta sentitu den	24 -> Esan egoera bat non lagun bat baztertu duzun
25 -> Ieroglifikoa	26 -> Duzun estereotipo bat kontatu eta hautsi	27 -> Ieroglifikoa	28 -> Etorri berri den pertsona bati laguntzeko egin dezakezun hiru ekintza esan	29 -> Pista ezberdinekin zein hizkuntzatz ari garen asmatu	30 -> Dantza hau egin

5.2) Munduko oka aurrera eramateko galdera eta erronken taula:

<https://docs.google.com/document/d/1Swg5ZtfRBphKsEGb928fJwHlHS-7ZRxH3mip0o72XyU/edit?usp=sharing>


5.3) Puzzlea (tamaina handian inprimatu beharko da)



ERANSKINA 6

KULTURARTEKO MITOLOGIAK

**PERTSONAI MITOLOGIKO EZBERDINEN
ISTORIOAK:**



6.1) PERTSONAIA MITOLOGIKOEN ISTORIOEN AUDIOAK

Talde txikietan kontakizun mitologikoen audioak jarriko dira, lehenengo jatorrizko hezkuntzan eta ondoren euskaraz, jarraian audioen linkak txertatuko dira.

Suitza eta Austriako mitologia, Le Dahu:

[Le dahu. Suitza.](#) | [ongiotorrieskolara](#)

Euskal Herriko mitologia, Basajaun:

[Basajaun. Euskal Herria](#) | [ongiotorrieskolara](#)

Mexiko eta Guatemalako mitologia, Aluxe:

[Aluxes. Mexiko.](#) | [ongiotorrieskolara](#)

Marokoko mitologia, Baba Achour:


[Baba Achour. Maroko](#) | [ongiotorrieskolara](#)

Saharako mitologia, Shertat:

[Shertat. Sahara](#) | [ongiotorrieskolara](#)

ERANSKINA 7

TRIVIAL



7.1. TRIVIALEKO TXARTELTXOAK

KONFESIOA

**Arrazismoaren
kontra egin
dezakezun ekintza
bat esan**



KONFESIOA

**Konfesatu egoera
bat non baztertua
sentitu zaren**



KONFESIOA

**Konfesatu egoera
bat non norbait
arrazista izan dela
identifikatu duzun**



KONFESIOA

**Konfesatu gaur
egun duzun edo
izan duzun
aurreiritzi bat**



KONFESIOA

**Ezberdinkeriak
beldurtzen zaitu?
Zergatik?**



KONFESIOA

**Kulturarteko
egoera polit bat
kontatu**



TRIVIALEKO TXARTELTxoAK

KONFESIOA

**Konfesatu egoera
bat non arrazista
izan zaren**



KONFESIOA

**Konfesatu egoera
bat non norbait
baztertu duzun**



KONFESIOA

**Konfesatu egoera
bat non bazterketa
bat ikusi duzun. Zein
izan da zen
erantzuna?**



KONFESIOA

**Konfesatu egoera
bat non ondokoa
baino gehiago
sentitu zaren**



TRIVIALEKO TXARTELTxoAK

ZUZENDU

**Norbait baztertzea
ondo dago
desberdina delako**



ZUZENDU

**Errespetua ez da
garrantzitsua
elkarrekin bizitzeko**



ZUZENDU

**Beste herrialde
batetik etortzeak
lagun ona izatea
zailtzen du**



ZUZENDU

**Pertsona batzuek
besteek baino
eskubide gehiago
dituzte jatorriagatik**



ZUZENDU

**Arrazismoa
onargarria da
txantxetan
bakarrik egiten
bada.**



ZUZENDU

**Gure gelan kultura
bakarra egon behar
da denok ondo
moldatzeko**



TRIVIALEKO TXARTELTxoAK

ZUZENDU

**Beste kultura
bateko pertsonekin
ez dugu ezer ikasiko**



ZUZENDU

**Azalaren koloreak
pertsona baten
balioa adierazten du**



ZUZENDU

**Hizkuntza
desberdinak hitz
egitea arazo bat da
eskolan**



ZUZENDU

**Etorri berri diren
pertsonak gure
laguntza behar dute**



ZUZENDU

**Desberdinak izatea
txarra da
gizartearentzat**



TRIVIALEKO TXARTELTxoAK

ZUZENDU

**Herrialde guztietan
bizitza gurean
bezalakoa da**



ZUZENDU

**Ez dago beste
kulturen ohiturak
ikasteko beharrik,
bakoitzak bereak
ditu eta kitto**



ZUZENDU

**Etortzen denak ikas
ditzala hemengo
ohiturak, ez guk
berarenak**



ZUZENDU

**Ohitura batzuk
zentzugabeak
iruditzen zaizkit**



ZUZENDU

**Hizkuntza bera
erabiltzen ez
badugu, ezin dugu
komunikatu ezta
harremandu**



ZUZENDU

**Norbaitek gauzak
beste modu batera
egiten baditu, ziur
oker dagoela**



TRIVIALEKO TXARTELTxoAK

ZUZENDU

**Pertsona hau
margotzen ari naiz,
aurpegia haragi
kolorez margotuko
diot**



ZUZENDU

**Normala ez dena
beti arraroa izaten
da**



ZUZENDU

**Denok berdinak izan
beharko genuke
ongi moldatzeko**



DEFINITU

DISKRIMINAZIOA



TRIVIALEKO TXARTELTxoAK

DEFINITU

MIGRAZIOA



DEFINITU

ENPATIA



DEFINITU

IDENTITATEA



DEFINITU

ETNOZENTRISMOA



DEFINITU

XENOFOBIA



DEFINITU

SEGREGAZIOA



TRIVIALEKO TXARTELTxoAK

DEFINITU

KULTURARTEKOTAS
UNA



DEFINITU

ARRAZISMOA



DEFINITU

KULTURA
ANIZTASUNA



GALDERAK

**Pertsona guztiak
berdinak gara balioan?**

- a) Bai
- b) Ez



GALDERAK

**Zein da bazterketa
adibide bat?**

- a) Denekin jolastea
- b) Norbaiti jolasetik kanpo
uztea bere jatorriagatik
- c) Laguntza eskatzea



GALDERAK

**Zerk laguntzen du
elkarbizitza ona izaten?**

- a) Errespetua
- b) Bazterketa
- c) Isiltasuna



TRIVIALEKO TXARTELT XOAK

GALDERAK

Zein jokabide da errespetuzkoa?

- a) Norbait baztertzea desberdina delako
- b) Barre egitea beste baten itxuragatik
- c) Denak berdin tratatzea



GALDERAK

Hizkuntza desberdinak hitz egitea...

- a) Arazo bat da
- b) Aberasgarria da
- c) Debekatua dago



GALDERAK

Zer egin behar dugu norbaitek komentario arrazista bat egiten badu?

- a) Ezikusiarena egin
- b) Barre egin
- c) Irakasleari edo heldu bati esan



GALDERAK

Zer da arrazismoa?

- a) Jende guztia berdin tratatzea
- b) Pertsonak azalaren koloreagatik edo jatorriagatik baztertzea
- c) Beste herrialdeetara bidaiatzea



GALDERAK

Zer esan nahi du kulturartekotasunak?

- a) Kultura bakarra egotea
- b) Kultura desberdinen arteko errespetua eta elkarbizitza
- c) Hizkuntza bakarra hitz egitea



GALDERAK

Denok eskubide berdinak ditugu jatorria edozein dela ere?

- a) Bai
- b) Ez



TRIVIALEKO TXARTELTxoAK

GALDERAK

Zer dira
pribilegioak?



GALDERAK

**Desberdinak izateak
gizartea...**

- a) Okerragoa egiten du
- b) Interesgarriagoa egiten du
- c) Berdin uzten du



GALDERAK

Zer da kultura?



GALDERAK

Zein erreferente
ezagutzen dituzu
jatorri
ezberdinetakoak?
(Eman 4 adibide)



GALDERAK

Kulturarteko
hezkuntzak zein
ondorio positibo
izango ditu zuen
eskolan?



TRIVIALEKO TXARTELT XOAK

GALDERAK

Zergatik da horren garrantzitsua kultura aniztasuna gure gizartean?



GALDERAK

Zergatik uste duzue dela garrantzitsua arrazismo egoera batean erantzutea?



GALDERAK

Nola lagundu diezaiokegu etorri berri den pertsona bati? (Eman 5 ideia



GALDERAK

Zein desberdintasun dago inklusioaren eta integrazioaren artean?



GALDERAK

Zein inpaktu du erosten ditugun gauzek gainontzeko herrialdeetan?



GALDERAK

Nondik dator gasolina? Zein eragin du bertako pertsonengan?



TRIVIALEKO TXARTELTxoAK

EGIA ALA GEZURRA?

Norbaitek bere
azalaren
koloreagatik
gutxiago balio duela
pentsatzea
arrazismoa da



EGIA ALA GEZURRA?

Eskolan denok
eskubide berdinak
ditugu, jatorria
edozein dela ere



EGIA ALA GEZURRA?

Beste herrialde
batetik etortzeak
esan nahi du ezin
dela lagun on bat
izan



EGIA ALA GEZURRA?

Hizkuntza
desberdinak hitz
egitea aberatsa da,
ez arazoa



EGIA ALA GEZURRA?

Arrazakeria
txantxa moduan
egitea onargarria da



EGIA ALA GEZURRA?

Errespetua eta
enpatia
garrantzitsuak dira
elkarrekin ondo
bizitzeko



TRIVIALEKO TXARTELTxoAK

EGIA ALA GEZURRA?

Munduan kultura
desberdin asko
daude, eta denak
errespetatu behar
dira



EGIA ALA GEZURRA?

Beste kultura
bateko norbait
ezagutzea aukera
ona da gauza
berriak ikasteko



EGIA ALA GEZURRA?

Pertsona guztiak
berdinak dira
pentsatzeko eta
bizitzeko moduan



EGIA ALA GEZURRA?

Kultura bat
ezaugarri gutxi
batzuetara mugatu
daiteke



EGIA ALA GEZURRA?

Desberdinak izateak
gizartea
interesgarriagoa
egiten du

TRIVIALEKO TXARTELTxoAK

EGIA ALA GEZURRA?

Etorri berri diren
pertsonei guk egin
behar diegu bidea



EGIA ALA GEZURRA?

“Nongoa zara?”
galdera mingarria
izan daiteke
batzuentzat



EGIA ALA GEZURRA?

Delitu gehienak
pertsonek migratuek
gauzatzen dituzte



EGIA ALA GEZURRA?

Pertsonek bat leku
ezberdinetakoa
sentitu eta izan
daiteke



EGIA ALA GEZURRA?

Egoera
okerragoetan
dauden pertsonek
lan gutxiago egin
dutelako daude
okerrago



EGIA ALA GEZURRA?

Gaur egungo
gizarteak ez da
arrazista



TRIVIALEKO TXARTELTxoAK

EGIA ALA GEZURRA?

Gure kolorea ez
duten pertsona
guztiak
kanpotarrak dira.



EGIA ALA GEZURRA?

Pertsona euskaldun
bat euskaraz
dakiena soilik da



EGIA ALA GEZURRA?

Pertsona baten
identitatea jaio den
tokiak definitzen du



7.2) TRIVIALEKO TXARTELT XOAK

TXARTELT XOAK BEHAR BEZALA IKUSI ETA
KALITATE HANDIAGOAREKIN INPRIMATU
AHAL IZATEKO, ONDORENGO ESTEKA:

EGIA ALA GEZURRA? Gure kolorea ez duten pertsona guztiak kanpotarrak dira. 	EGIA ALA GEZURRA? Pertsona euskaldun bat euskaraz dakiena soilik da. 	EGIA ALA GEZURRA? Pertsona baten identitatea jaso den tokia definitzen du. 
EGIA ALA GEZURRA? Pertsona bat leku ezberdinetakoa sentitu eta izan daiteke. 	EGIA ALA GEZURRA? Egoera okerragoetan dauden pertsonak lan gubako egin dutelako daude okerrago. 	EGIA ALA GEZURRA? Gaur egungo gizartea ez da arrazista. 
EGIA ALA GEZURRA?	EGIA ALA GEZURRA?	EGIA ALA GEZURRA?

7.3) TRIVIALEKO ERANTZUNAK


**TRIVIALEKO ERANTZUNEN
DOKUMENTURAKO ESTEKA:**

https://drive.google.com/file/d/1wN7lo7F30c4GPDfxvBlagsR7k_IV51pZ/view?usp=sharing

ERANSKINA 8

ESCAPE ROOM

**NONDIK NORAKOA MODU SAKONEAN
AZALDUTA:**



8.1) NONDIK-NORAKOAK

Istorioa:

Duela urte asko, gizakiak giltza handi bat sortu zuen, Ulermenaren Giltza izenaz ezagutua. Honek, herri guztien eta pertsona guztien arteko ate guztiak irekitzen zituen, baina, denborarekin, giltza honen funtzionamendurako ezinbestekoak diren baloreak erabiltzeaz utzi zuten gizakiek. Balore hauek, entzutea, partekatzea eta elkar ulertzea dira, eta gure munduak izan duen garapena dela eta, gizaki askok jada ez dute hau egiten. Hau dela eta, giltza mundutik atera da, eta orain dagoen lekura iristeko, ate bat ireki behar da, baina, ez dakigu zenbat aldiz jo behar den atea hau ireki dadin... lagunduko diguzue atea irekitzeko zenbat kolpe behar ditugun asmatzen?

1.FROGA: Komunikazioa, munduko ahotsak

MATERIALA:

Txarteltxoak, hizkuntza ezberdinetan idatzitako hitzekin

EGINBEHARRA:

- Txarteltxo hauek puzzle formatuan egongo dira, eta beraz, hasteko puzzlea osatu beharko dute.
- Puzzlea osatu ondoren, konturatuko dira mezua ez dagoela euskaraz idatzia, eta beraz, mezua itzultzeko, hiztegiak beharko dituzte. Txarteltxoaren atzean zein hizkuntzatan dagoen jarriko duenez, behar duten hiztegia aurkitu beharko dute gelan zehar eta hitza itzuli. Erantzunak “laguntasuna”, “bakea”, “eskerrak” bezalako hitzak izango dira.

HAUSNARKETA: Nola komunikatzen gara bide edo hizkuntza bera ez dugunean? Zein modu existitzen dira hitzetatik haratago elkar ulertzeko?

TALDEA	HITZA	ERANTZUNA
1. TALDEA	共感 (japaniera)	ENPATIA
2. TALDEA	рівність (ukraniera)	BERDINTASUNA
3. TALDEA	stöd (suediar)	BABESA
4. TALDEA	الصداقة (arabea)	LAGUNTASUNA
5. TALDEA	różnorodność (polakoa)	ANIZTASUNA

2.FROGA: Zertarako balio dute baloreek?

MATERIALA:

Istoriotxoak.

EGINBEHARRA:

- Aurreko frogako balorea kontuan hartuta, istorio ezberdinak irakurri beharko dituzte, eta beraien baloreak ze istoriori erantzuten dieten asmatu.
- Asmatu ondoren, beste txartel batean aurreko istorioan beraien balorea erabiliko ez balitz gertatuko litzatekena idatzi beharko dute
- Ondoren, bakoitzak, balore hori praktikan jarri **ez** duen egoera bat kontatuko dio taldeari

3. FROGA: Erreferenteak

MATERIALA:

Erreferente ezberdinen fitxak.

EGINBEHARRA:

Hasierako hiztegiaren barruan txarteltxo batzuk egongo dira, erreferente batekin. Txarteltxoak, ordea, modu nahasgarri batean idatzia egongo da, eta beraz, hau dezifratu eta beste kartulina batean honen aurkezpena egin beharko dute. Ondoren, erreferentearen inguruko aurkezpen txiki bat prestatu beharko dute.

HAUSNARKETA:

Zer gertatzen da ezagutu gabe epaitzen dugunean? Nola egin dezakegu taldeko inor taldetik kanpo ez sentitzeko?

4.FROGA: Kooperazioa, *borobilaren erronka*

MATERIALA:

- Hari bat
- Txarteltxoak arazo globalekin (pantailan jarrita)

EGINBEHARRA:


Arbelean hainbat eta hainbat injustizia edo munduko arazo egogo dira. Pertsona batek haria hartuko du eta arazo bat aukeratu ondoren, honi konponbide bat proposatuko dio (beraien esku dagoen bat, hau da, praktikan jarri dezaketen bat) eta ondoren haria beste bati pasako dio, berdina egin dezan. Haria guztiok heldu arte jarraituko du dinamikak, eta guztiok konponbideak proposatzean ateari zenbat kolpe jo asmatu beharko dute (beraien gelako kide kopurua izango da erantzuna, guztien parte-hartzea behar baita benetazko konponbide bat emateko)

AMAIERAKO HAUSNARKETA:

Zer ikasi dugu scape room honekin? Zertarako balio izan du? Zein gauza berri jarriko ditugu praktikan aurrerantzean?

8.2) TXARTELT XOAK

TXARTELT XO HAUEK INPRIMATU EGIN BEHARKO DIRA, ETA ONDOREN, NAHI BEZALA MOZTU, BERAIEK PUZZLEA OSATU DEZATEN:



8.3) ISTORIOAK

ISTORIO HAUEK INPRIMATU EGIN BEHARKO DIRA, TALDE BAKOITZARI BANA EMATEKO:

1. ISTORIA:

Pertsona bat gai da
modu aktiboan
entzuteko, epaitu gabe,
interes zintzoa erakutsiz
beste pertsonarekiko.

8.4) ERREFERENTEEN FITXAK

ERREFERENTEEN FITXAK IKUSTEKO ETA INPRIMATU AHAL IZATEKO, ONDORENGO HAU DA ESTEKA:



Nelson Mandela

H3gofr1k4k0 i1d3r h4nd1a 1z4n z3n, 4p4rth31d 1z3n3k0 s1st3m4 4n4z1s4r3n 4urk4 b0r0k4u zu3n4. 27 urt3 k4rtz3l4n 3g0n z3n, b41n4 m3nd3ku4 b1l4ku b3h4rr34n, b4k34 3k4 d1sk1d3r234 sust4ku z1tu3n. H3rr14d3k0 3h3n pr3s1d3n3d b3rt24 1z4n z3n.



Fairuz

L1b4n0k0 4b3s4r1 0sp3su4 d4, 3k14d3 Hurb10k0 4h0ts 3z4gun3n3k4k0 b4t. 83r3 k4ntu3k n0u14g54 3k4 b4k34 tr4nsm1ttuz3n dut3, 3k4 h41nb4t b3l4un4d164n m41l4tu4 1z4n d4. H3rr14d3 4sk0t4n 1kur kultun4l h4nd14 d4.



Serena Williams

T3n1s4r1 h4nd13n3k4k0 b4t d4 h1st0r14n, Gr4nd Sl4m t1tulu 4k0 1r4b4z1l4. 1nd4rr4, 33kn1k4 3k4 buruk0 s3nd0t4sun4 d1tu 3z4ug4rr1, K1r0l4z g41n, 3m4kum33n 3k4 b3rtz3n 3skub1d33n 4d3k0 4h0ts4 3r3 b4d4.

8.5) ARAZO OROKORRAK

AZKEN FROGARAKO BEHARREZKO ARAZO OROKORRAK DAUDE PDF HONETAN, HAUEK PROIEKTATU EGIN BEHARKO DIRA:

Bi pertsona hizkuntza ezberdinetan hitz egiten ari dira, eta ez dute elkar ulertzen

Pertsona bati ez die talde batean sartzen uzten, bere azal koloreagatik.

Patioan zaudetela, pertsona batzuk beste bati barre egiten ikusten dituzu, euskaraz ongi hitz egiten ez duelako.

Pertsona bati iraindu egiten diote hitz egitekoan duen doinua/azentoagatik

Zure klasekide batek kanpotik datozen pertsona guztiak berdinak direla esan du klasean.

Ikasle batek bere kulturako musika ekarri du klasera, eta besteek barre egin diote.

Ikasle batek ez du azalpenaren zati bat ulertzen eta kostatu egiten zaio ikasgelako erritmoa jarraitzea.

Ikasle bati behin eta berriz galdetzen diote: "benetan nongoa den".

Pertsona bat Euskal Herrian garrantzitsua den festa batean deseroso sentitzen da ez duelako ezagutzen ospakizuna eta inorrek ez diolako